

IKERKETA | 9

Plastikotasun Neuronal
Fisioterapian

GURE ELKARTEAK | 12-13

Euskadiko down sindromea eta
beste minusbaliotasun
intelektualen fundazioa

GERTUTIK | 18-19

Julian Iantzi

EUSKARA OSAKIDETZAN | 20-21

Ama izateko prestakuntza
zerbitzua euskaraz



BIODONOSTIA,
EUSKADIKO OSASUN IKERKETAKO
LEHEN INSTITUTUA | 5-8

NORABIDE ETA PAUSO EGOKIAK

Ia eguneroko berria dugu gure herriak bizi duen beheraldi ekonomikoa. Urruneko oihartzuna izatetik geure etxean bertan ikusten ditugun oztopo eta zailtasun izatera pasatu da krisia. Elkarren segidan datoz Administrazioan eta gizarte osoan gauzatzen ari diren murrizketa-neurriak.

“Erronka moduan, irakurle eta osasun arloko profesionalen partaidetza areagotzeko asmoz, euskara hutsezko aldizkari-proiektu hau sendotzen jarraitu nahi genuke datozen aleetan”.

Aitzitik, testuinguru honetan OSATU berri aldizkaria norabide eta pauso egokiak hartzen ari da, proiektua sinesgarritasuna hartuz doan heinean. Horren erakusgarri dira, batetik, irakurleengandik jasotako harrera ona eta proiektu hau aurrera eramaten lagundu duten profesional guztien lana (aldizkariako edukiak eta erreportajeak egiteko, batez ere); eta, bestetik, Osakidetza 2012. urte osoan aldizkaria argitaratzeko hartutako konpromisoa.

Erronka moduan, irakurle eta osasun arloko profesionalen partaidetza areagotzeko asmoz, euskara hutsezko aldizkari-proiektu hau sendotzen jarraitu nahi genuke datozen aleetan. Bidelagun izan nahi zaitugu.

MARTXOA

PAZIENTE KRONIKOEN OSASUN ATENTZIORAKO IV. BILTZAR NAZIONALA

2012, martxoak 8-10
<http://www.osakidetza.net/es/html/5/4414.shtml>
 Informazio gehiago: <http://iv.congresocronicos.org/>

EGUNERATZE-JARDUNALDIA KOLON-ONDESTEN MINBIZIAREN BAHEKETAREN ARLOAN: BARNERATUTAKO IKASGAIAK

2012, martxoak 9
<http://www.osakidetza.net/es/html/5/4416.shtml>

OSASUNAREN INFORMATIKAKO XV. BILTZAR NAZIONALA

2012, martxoak 20-22
<http://www.osakidetza.net/es/html/5/4413.shtml>
 Informazio gehiago: <http://ttiki.com/34735>

MAIATZA

OSASUNAREN EKONOMIAKO XXXII. JARDUNALDIAK

2012, maiatzak 15-18
<http://www.osakidetza.net/es/html/5/4034.shtml>
 Informazio gehiago: <http://www.aes.es/jornadas>

ZELARIEN ETA ARDURADUNEN XIII. JARDUNALDI NAZIONALAK. OSAKIDETZAKO ZELARIEN IV. JARDUNALDIAK

2012, maiatzak 16-18
<http://www.osakidetza.net/es/html/5/4253.shtml>

OEEREN BILTZAR MEDIKOA. OSASUN ARLOKO LANGILEON ERRONKA BERRIAK

2012, maiatzak 18-19
<http://www.osakidetza.net/es/html/5/4295.shtml>

OSASUN ARLOKO KOSTUAK KUDEATU ETA EBALUATZEKO XI. JARDUNALDIAK

2012, maiatzak 30 – ekainak 1
<http://www.osakidetza.net/es/html/5/4614.shtml>
 Informazio gehiago: <http://www.jornadasigno.com>

EKAINA

HTA IN INTEGRATED CARE FOR A PATIENT CENTERED SYSTEM

2012, ekainak 23-24
<http://www.osakidetza.net/es/html/5/4473.shtml>

Argitaratzailea:

Osakidetza

Araba kalea 45, 01006

Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 006 406

osatuberry@osakidetza.net**Erredakzio kontseilua:**

Xabier Arauzo

Juan Elorriaga

Koordinatzailea:

Arteman Komunikazioa

Tirada:

7.000 ale

Lege gordailua:

SS 1472/2011

Diseinua eta maketazioa:

Arteman Komunikazioa

Azaleko argazkia:

Josetxo Arantzabal

Argazkiak:

Arteman/Josetxo Arantzabal

Inprimategia:

Gertu (Oñati)

Osatuberrin parte hartu nahi?

Zu ere protagonista izan zaitezke aldizkarian. Atal hauetan parte hartzeko idatzi osatuberry@osakidetza.net helbidera.


Behin bat: herriko anbulatorioan edo ospitalean gertatutako anekdota bat edo pasarte bat baduzu guri bidaltzea baino ez duzu.

Gure txokoa: lantaldeen ospakizunak eta oroigarriak biltzeko atala.

Bidaia: kontatu bizi izandako abenturak, hala, irudikatzen eta erakusten lagunduko dizugu.

Irakurkizunak: ezer komentatu nahi izanez gero horra gure koadernoak.

Ezetz jakin! : zalantzarik baduzu gurera bidali eta erantzun zuzena ematen ahaleginduko gara.



2

AGENDA

4

JAKINBERRI:

Azken berriak motzean

5|8



I+G

Biodonostia

9

IKERKETA

Plastikotasun Neuronal Fisioterapian

10 | 11

OSASUN URRATSAK

'Erizaina kirolfanoan' gida-liburua

12 | 13

GURE ELKARTEAK

Euskadiko down sindromea eta beste minusbaliotasun intelektualen fundazioa

14 | 16

PLAZATIK



Cristobal Balenciaga Museoa

17

ZORTZIKO TXIKIAN

Karlos Ibarguen

18 | 19

GERTUTIK

Julian Iantzi

20 | 21

EUSKARA OSAKIDETZAN

Ama izateko prestakuntza zerbitzua euskaraz

22

ANBULATORIOAN

Aramaio

23

LANBIDEA

Naiara de la Torre

24 | 25

ATZERA BEGIRA

Medikuen eta euskararen arteko hastapenak

26

KIROLA OSAKIDETZAN


Mikel Zubeldia eta Mikel Carrete

27

TXAPELA BURUAN

Agurain

AURKIBIDEA



PREBENTZIOARI BURUZKO JARDUNALDIAK MARTXOAN

Martxoaren 8an, Erakunde Zentraleko areto nagusian egingo da infekzio nosokomialen prebentzioari buruzko jardunaldia.

Jardunaldia goizeko 9etan hasiko da, eta honako hauek aurkeztuko dute hasiera-ekitaldia: Julián Pérez Gil, Osakidetza zuzendari nagusia, eta Hugo Villegas, Teknologia eta Osasun Fundazioko patronoa.

Jardunaldian bertan, "Pazientearen segurtasuna: Euskadik infekzioen prebentzioan hartutako konpromisoa eta estrategia" izango da lehenengo mahaia. Ondoren, Pattel doktoreak "NHS, kasu arrakastatsua" hitzaldia emango du.

Bigarrenik, "Klinikoen betekizuna eta infekzio nosokomialak prebenitzeko azken teknologiak". Ostean, "Ospitaleetako gerentzia: infekzio nosokomialak prebenitzeko inbertsioaren itzulera" gaia jorratuko da, eta kasuan kasuko mahai-ingurua garatuko da.

14:45etik aurrera, amaiera-ekitaldia hasiko da, eta honako hauek parte hartuko dute bertan: Mercedes Estebanez, Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun Publikoko zuzendaria, eta Jose Luis Gomez, Teknologia eta Osasun Fundazioko patronoa.



BIODONOSTIAK ONKOLOGIAKO IKERKETA LERROA AURKEZTU DU

Biodonostia Ikerketa Institutuak dagoeneko zazpi ikerketa lerro ditu. Otsailaren 10ean inaurratu zuten Onkologia alorreko ikerketa taldea. Horrela, sorrerako sei alorrei ikerketa onkologikoa gaineratu dio Biodonostiak. Onkologiako taldea izen handiko ikerlari britaniar batek zuzenduko du eta guztira 20 lagunekoa taldea osatu dute. Guztira 300 ikerlari ari da lanean gaur egun Donostiako Institutuan. Goizetik iluntzera arte, etenik gabe, hobekuntza medikoa bilatu nahian. Enpresa, ikerketa gune eta Ospitaleak hartu-emanean jarri ditu Biodonostiak, era koordinatuan.



EUSKARAREN KALITATEAREN ETA ERABILERAREN ALDE

Zumarragako Ospitaleak eta Osakidetza Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdeak Bikain Ziurtagiria lortu dute, euskararen kalitatearen aldekoa. Ziurtagiri ofizial, publiko eta doakoa da, Eusko Jaurlaritzak ematen duena, eta enpresa zein erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duena. Sari banaketa ekitaldia azaroaren 30ean egin zen, Bilboko Guggenheim Museoa. Osakidetza erakundearen artean Zumarragako Ospitaleak, Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeak, Mendaroko Ospitaleak, Galdakao-Usansolo Ospitaleak eta Gipuzkoako Emergentziek UTE, lortu dute ziurtagiria.



Idatzi zure iradokizuna
osatuberri@osakidetza.net
helbidera eta bertan argitaratuko dugu.

EUSKARA AZTERKETA

Arratsalde on,

Euskara azterketei dago-kienez, hurrengo iradokizuna edo eskaera egitea gustatuko litzaidake.

2011ko deialdetan Osakidetza azterketa ereduak aldatu ditu eta eredu bat dago.

Aurreko deialdetan, Osakidetza deialdi bakoitzaren azterketak web gunean jartzen zituen.

Nire iritziz, aztura hura oso ona zen, azterketa pres-tatzen dugunak azterketa hobeto presta dezakegu.

Nire iradokizuna da:

behin-betiko emaitza argitaratu bezain laster, azterketa ereduak argitara daitezke.

Zuek iradokizun hau kon-tuan hartzea espero dut.

Besterik gabe, agurtzen zaituztet.

M. L.

LANTOKI ALDAKETA

Egun on,

Osatuberriren lehen alea jaso dut lantokian eta lehenik eta behin zorionak eman nahi dizkizuet egitasmo honi ekiteagatik. Osatuz aldizkaria eskuartearen izan ondoren, irakurle modura zein artiku-lu batzuen idazle modura, aldizkariaren desagertzeak sorturiko hutsunea estaltzen lagunduko duela deritzot. Horrez gain, Osakidetza langileentzat egitasmo egokia iruditzen zait euskaraz irakurtzeko materiala eskuratzen baitu.

Aldez aurretik, ohar bat eman nahi nizueke: nire lantokia aldatu egin zen. Eskertuko nizueke bertara bidaliko bazenidate hemendik aurrera aldizkaria.

Adeitasunez,

I. U.



BIODONOSTIA, ONGIETORRI EUSKADIKO OSASUN IKERKETAKO LEHEN INSTITUTUARI

Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo osasun ikerketa institutua da Biodonostia, eta Gipuzkoa osoari zerbitzua eskaintzeko helburuarekin sortu zen orain lau urte. Ateak 2010ean ireki bazituen ere, Donostia Ospitaleak aspaldiko urteetan egindako ikerketan dago sustraituta Institutu berria.

Ikerketa era koordinatuan bideratu nahi du Biodonostiak, ikerketaren arloan egon daitezkeen aktore guztiak aintzat hartuta, eta bideratuta inguruko enpresei, administrazioari zein berrikuntza guneei. Ana Garmendia da koordinazioaz arduratzen dena, "bi noranzko dituen ikerketa burutu nahi du gure institutuak. Zentro teknologiko, enpresa eta ospitaletako ezagutza aktibatuz, batetik bestera eta kontrako bidean osasun sistema hobe bat lortu dadin guztien elkarlanaren bitartez".

2006an Donostia Unibertsitate Ospitaleko Plan Estrategikoa egin zen eta bertan aurreikusi zen Biodonostiaren sorkuntza. Proiektua

gauzatzen ari zen, sustraiak ondo errotuta eta etorkizuna idatzita. Bide horretan hurrengo mugarrira martxan jartzea izan zen, eta ondoren, 2011n, Carlos III.a Osasun Institutuak ematen duen bikaintasun-maila lortu zuen. Biodonostiak egiten duen lan zientifikoaren garrantziaren kanpoko adierazle maila da hori. "Akreditazioa lortzeko prozesua luzea eta gogorra izan bada ere, zorionez Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo ikerketa medikoko Institutua gara eta Estatuan dauden 16 institutuetako bat".

Biodonostia jaioberrian guztira 300 ikerlari ari da lanean, goizetik iluntzera arte, etenik gabe, hobe-kuntza medikoak bilatu nahian.

“Ospitalea da gure gunea eta bertatik sortu da Biodonostia, baina badira beste bazkide batzuk hasieratik izan direnak: Osatek, Osakidetza, eskualdeetako ospitaleak, EHU, Ingema, CIC Microgune... ikerketa guneein eta enprekin harreman zuzena du Biodonostia Institutuak”. Donostia Unibertsitate Ospitaleko sanitarioak, Ikerketa Institutuko ikerlariak eta inguruko enpresa eta ikerketa gunetako ikerlariak oso gertu daude, eta hori da Ikerketa Institutuaren etorkizunaren oinarria eta giltza.

“Biodonostia jaioberrian guztira 300 ikerlari ari da lanean, goizetik iluntzera arte, etenik gabe, hobekuntza medikoak bilatu nahian.

APLIKAZIORA BIDERATUTAKO IKERKETA

Elkarlanean ari den erakundea da eta Ana Garmendiak adierazi digunez, tresna eta gailuen sorkuntza eta aplikazioa da Biodonostian egiten den ikerketaren helburu nagusietako bat. “Gure sistema oso bideratuta dago aplikaziora. Pazientearen beharrei erantzun bat emateko benetan baliagarriak izango diren errekurtsu teknologikoak sortu nahi ditugu. Inork ez baldin badu erabili behar gure sorkuntza, ez dugu bide hori jorratuko”.

Eta helburu horrekin, Biodonostiak sanitario guztiei ireki dizkie ateak. “Zazpi arlotan egiten dugu lan eta horietan guztietan ikertzeko diziplina anitzeko pertsonak nahi ditugu. Bioingeniaritzan, medikuntza biziberritzailean, epidemiologian eta osasun publikoan, digestio aparatuko gaixotasunen zein gaixotasun kardiobaskularren eta neurozientzien arloan, infekzio-gaixotasunetan eta onkologian”. Arlo horietan guztietan baliagarriak izan daitezkeen osasun teknologia edo farmakoak lortu nahi dituzte. “Guztien arteko lana ezinbestekoa da, sinergiak bultzatu behar ditugu,

JULIO ARRI-ZABALAGA
Biodonostiako
zuzendari
zientifikoa.



eragile desberdinen arteko ezagutza eta guztien artean produktu erabilgarriak sortu behar dira”. Halakoa izan behar da Biodonostiaren ikuspegia Ana Garmendiaren esanetan.

IKERKETA ONKOLOGIA ARLOAN

Sorreratik sei arlo jorratu izan baditu ere, otsailaren 10etik aurrera onkologia alorrean ere badihardu Institutuak. Eta onkologian aurrera egiteko eta lidergo lana egiteko Oxford unibertsitate ospetsuko ikerlari bat ekarri dute. “Taldea oso motibatuta dago eta dagoeneko

aurrerapausoak eman dituzte zenbait ikerketatan”.

Onkologia arloan Donostia Unibertsitate Ospitaleko gunea erreferentzia bilakatzen ari da Estatuan, bertan daude eta Onkologikoa, Donostia Unibertsitate Ospitalea, parke teknologikoko ikerketa zentroak eta enpresak. “Guztien artean gune interesgarria sortzen ari gara, azpiegitura dotoreekin, eta kanpoko ikerlari ospetsuendako gero eta erakargarriagoa da Donostia”. Gaur egun, arlo berrian 20 ikerlari inguru ari da jardunean, baina kopuru hau handituko da etorkizun hurbilean ikerketa lerro berriak gehitzean, betiere instituzio eta elkarrekin bultzada mantentzen bada.

Biodonostian dihardutenen profilari erreparatuz gero, 300 ikerlari horietatik asko dira Unibertsitate Ospitaleko sanitarioak, baina badaude bekadunak eta erakundearen ikerlari propioak ere. “Ikerketan jarduteko berezko grina izatea beharrezkoa da. Ikerketa bultzatzeko eta zerbitzuak hobetzeko sanitario guztien esperientzia oso inportantea da”, pertsona

“Gure sistema oso bideratuta dago aplikaziora. Pazientearen beharrei erantzun bat emateko benetan baliagarriak izango diren errekurtsu teknologikoak sortu nahi ditugu”.



guztiek dituzte atea irekita Biodonostian. Baina horiekin guztiekin batera, badira ingeniariak, matematikariak eta informatikariak ere. "Garrantzitsua da pazientearen tratamenduan hobekuntzak ezartzea eta horretarako, sanitarioez gain, beste espezialitate askotako pertsonen lana ere oso inportantea da, guztien artean hobekuntzak proposatu ditzaten".

GIZARTEA ETA SEKTORE SANITARIOA

Gizarteak gero eta gehiago eskatzen du hobekuntza arlo sanitarioan. Bizi itxaropena luzatu egin da eta guztiok kalitatezko bizitza nahi izaten dugu, eta hori lortzeko ezinbestekoak dira hobekuntza prozesuak. "Ikertu beharra dago, garatu behar dira proiektuak eta zerbitzua eskaini behar diegu gipuzkoar guztiei. Sistemari erantzunak eskatzen dizkiogu herritarrek bizitza aktiboa izaten jarraitu dezaten", gaineratu du Biodonostiako berrikuntza unitateko koordinatzaileak.

Era berean, sektore sanitarioa ere hazi egin da aspaldion Euskal

Autonomia Erkidegoan. Gero eta enpresa gehiago ari da osasunaren arloan lanean, era egituratuan, korporazio handien promozio zentroetan eta horrek guztiak eragina izango du Institutu berriaren eguneroko jardunean.

MUGARRI NAGUSIAK

Lau urteko ibilbidea laburra bada ere, epe horretan Biodonostiak dagoeneko lortu ditu mugarri garrantzitsu batzuk. "Esklerosi anitzterako patente bat lortu dugu". Alor horretan lan-talde polita sortu dute eta erreferentziatzko gune bilakatu nahi dute. Baita patenteen sorkuntzan ere. "Laster merkaturatu daitekeen produktu


bat dugu, gure lurraldeari aberastasuna eragingo diona, eta ikeritzen jarraitzeko aukera emango diguna". Sorkuntza horren berri jakitun izan arren, oraindik ezin dute publiko egin Biodonostiakoek. "Hobe da komunikazio arloan tentuz jokatzeari, bestela beste batzuei informazio gehiegi ematea izango litzateke". Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan ikerketa ospitaleetan eta gune sanitarioetan garatu izan da orain arte, aurrerantzean berriz, ikerketa institutu berriak sortu daitezke, horien artean dago Biogurutzetako proiektua Bizkaian.

Etorkizunera begira proiektua finkatu, sendotu eta indartu gura dute. Poliki baino azkar doan erakundea da, epe laburrean lorpen handiak lortu dituen. "2010ean inauguratu zen, 2011an akreditazioa lortu genuen eta une honetan dena finkatzen eta ondo errotzen ari gara". Onkologia arloa estreinatu berritan, etorkizunean arlo berriak sortzeko asmoa du Biodonostiak, "gizarteari ahalik eta erantzun zabalena emate-

IKERLARIA ONKOLOGIA ZERBITZUAN

Otsailaren 10ean inauguratu zuen Biodonostiak Onkologia alorreko ikerkuntza zerbitzu horretako ikerlari bat.

"Bizi itxaropena luzatu egin da eta guztiok kalitatezko bizitza nahi izaten dugu, eta hori lortzeko ezinbestekoak dira hobekuntza prozesuak".



ko". Krisi garaian ere aurrera egin nahi du ikerketa guneak eta epe laburrean ikerketa aplikagarriak eta prototipoak martxan jarriko dituzte. "Hori da gure nahia. Badugu prototipo bat, enpresa batekin elkarlanean eta horren berri emango dugu epe laburrera". Horrelako sorkuntzek taldea motibatzen balio dutela gaineratu digu Garmendiak.

Dispositibo berri baten garapenerako ere jaso dute instituzioen babes ekonomikoa. "Txip bat da pazienteak irentsi ahal izango duena eta bere pH-aren edo garraztasunaren neurketa egiteko balio izango du". Era berean, traumatologoek inplanteetarako erabiltzen dituzten materialak hobetzen ari dira, "titaniozko pieza ahalik eta biokompatibleenak eta beste zenbait gailu".

EUSKADIKO BIOBANKOA


Biodonostiara eginiko bisitaren azken tarteetan Euskadiko Biobankoren gunea bisitatu dugu. Txistuaren eta odolaren laginak jasotzen dituzte ikerketa bideratzeko. Hemen gordetako laginak Biodonostiaren Genomikako Plataforman aztertzen dira. "Izugarrizko tresneria dago bertan eta gene horiek guztiak sekuentziatu daitezke. Eta ez hori bakarrik. Aurki merkaturatuko den sekuentziadore berri bat testatzeko aukeratuak izan gara". Munduan hiru zentrotan egiten ari dira lan hori, eta horietako bat da Biodo-

nostia. Mundu mailan erreferente bilakatu gara. Etorkizunera begira proiektua finkatu, sendotu eta indartu gura dute. Poliki baino azkar doan erakundea da, epe laburrean lorpen handiak lortu dituenak. "2010ean inauguratu zen, 2011an akreditazio lortu genuen eta une honetan dena finkatzen eta ondo errotzen ari gara". Onkologia arloa estreinatu berritan, etorkizunean arlo berriak sortzeko asmoa du Biodonostiak, "gizarteari ahalik eta erantzun zabalena emateko".



PUNTA PUNTAKO TRESNERIA

Biodonostia Institutuan punta puntako tresneria dute eta sekulako azpiegiturak ikerketa ahalik eta erabilgarriena bultzatzeko. Hori da helburuetako bat.



BIODONOSTIA, UN FUTURO ESPERANZADOR

El primer instituto de investigación sanitaria de Euskadi abrió sus puertas de forma oficial el 15 de noviembre de 2010 en Donostia, y en octubre de 2011 recibió la acreditación de la Comisión de Evaluación del ISCIII como instituto de investigación sanitaria por unanimidad de sus miembros.

El centro de investigación aspira a ser un centro de referencia a nivel estatal e internacional en investigación sanitaria y potencia de manera preferente la investigación trasnacional, apostando por la innovación en tecnologías médicas y sanitarias que revierten en una mejora la asistencia sanitaria. Al tiempo que generan riqueza para el país al convertir las invenciones en producto.

Desde el pasado 10 de febrero, Biodonostia ha alcanzado un nuevo hito, ya que, ha comenzado a investigar en el ámbito de la oncología, ampliando de seis a siete los ámbitos de investigación



Leire Echeazarra Escudero
Farmazian lizentziatua eta
Neurozientzia arloko ikertzailea

PLASTIKOTASUN NEURONALA FISIOTERAPIAN: BOBATH KONTZEPTUA (II)

Martxoko zenbakian ikerketaren
gainerako atala argitaratuko da.

Fisioterapia arloan, lehengo terapeuta gehienek asmo bakarra galdutako funtzioa berreskuratzea zen, gorputz-adar osasuntsuak erabiliz, pazienteek patroio patologikoak garatzen zituzten arren. 80. hamarkadan, neuropsikologiak eta motor sistemari buruzko ikasketak aintzakotzat hartzen hasi ziren. Ikuspuntu berri bat sortu zen: motor sistema modu orekatu batean erabiltzea ezinbestekoa da. Horrexegatik, nahiz eta hasieran sinestea kostatu, kasu batzuetan, motor sistema nola erabili berriro ikastea nahitaezkoa zen. Ildo horretatik, teknika berritzaile batzuk sortu ziren: Bobath, Votja, Frenkel, Doman Delacato edo Brunnström teknikak, besteak beste. Teknika horien guztien helburua sendatzeko prozesuan laguntzea da, hau da, galdutako funtzioa berreskuratzen laguntzea eta, are garrantzitsuagoa dena, pazienteek patroio patologikoak ez garatzea.

"Bobath teknika" deritzana oso teknika ezaguna da munduan zehar. Karel Bobath psikiatra eta Berta Bobath fisioterapeuta teknikaren sortzaileak dira. Bikoteak 30eko hamarkadan hasi zuen lana Londresen. Bertak teknika berriak erabiltzen zituen lesio neurologikoak tratatzeko. Lortzen zituen emaitza klinikoak miresgarriak zirela ikusita, Karel artikuluzientifikoak aztertzen hasi zen, teknikaren oinarri neurobiologikoak aurkitzeko asmoz. Biek batera -Berta arlo klinikotik eta Karel neurozientziatik- filosofia berritzaile bat sortu zuten. Orain, "Bobath filosofia" munduan zehar ezaguna da.

Bobath teknika plastikotasun neuronalean datza. Teknikaren helburua pazienteak funtzionaltasun egokia berreskuratzea da, hau da, mugimendu normalak lortzen laguntzea.

Bobath teknika plastikotasun neuronalean datza. Teknika hori erabiltzen duten terapeutak plastikotasun neuronala bultzatzen eta gidatzen saiatzen dira, beste modu batean esanda, plastikotasuna erabiltzen dute erreminta terapeutiko gisa. Teknikaren helburua pazienteak funtzionaltasun egokia berreskuratzea da, hau da, mugimendu normalak lortzen laguntzea. Garunean lesioren bat gertatzen denean, ondoko areak kaltetutako garun areei lotutako funtzioak betetzen saiatzen dira.

Horretarako, sinapsi berriak sortu behar dira, baina, esan dugun bezala, konexioak funtzionalak izan behar dira. Hortaz, fisioterapeuteen lana garrantzi handikoa da estimuluak modu egoki batean bideratzeko. Azaldu dugun bezala, garunaren plastikotasuna neuronan adar berrien sorkundearekin erlazionatuta dago zuzenki. Bobath teknika erabiltzen duten terapeutak garunak duen sendatzeko gaitasuna bul-

tzatzen eta bideratzen saiatzen dira, minusbaliotasuna minimizatzeke asmoz, baina kontuan hartu behar da terapia miresgarri ez dagoela. Horregatik, landu eta entrenatu behar da prozesu hori bultzatzeko. Zeregin hori sekulako erronka da, bai pazienteentzat, bai terapeuteentzat, baina sendatzeko itxaropenak merezi du ahalegina. Cohen Doktoreak dioenez (George Washington Unibertsitateko *Center on Aging, Health & Humanities*-ko zuzendaria), "zure garuna desafiitzen duzun bakoitzean, zure garuna aldarazten ari zara", "gainera, garun zelula berriak sor ditzakegu, mende luze batez, hori ezinezkoa dela esan badigute ere."



Nahiz eta garunak aldatzeko eta moldatzeko berezko joera duen, prozesua mugatua da. Horregatik, plastikotasun neuronala bultzatzea eta gida daiteke erreminta terapeutiko gisa. Fisioterapeuten lana oso garrantzitsua da prozesua egoki gertatzen laguntzeko.

Iturria: <http://ascadacr.wordpress.com/2009/07/29/neuroplasticidad/>



Iturria: <http://lavidasecretadelaspalabras.blogspot.com/>

'ERIZAINA KIROFANOAN'

EBAKUNTZA-GELAN ARITZEKO GIDA-LIBURUA

MENDARO OSPITALEKO ERIZAIN TALDE BATEK EGIN DU LIBURUA; ELHUYARREK ARGITARATU DU

"Gauza asko kontuan hartu behar dira kirofanoan lan egiteko eta ezinbestekoa da uneoro birziklatzea". Abiapuntu horrekin, Mendaro Ospitaleko **ebakuntza-gelako** bost erizain (Aintzane Giralte, Marisa Meizoso, Roberto Cano, David Soto eta Aitziber Jaio) lanean jarri ziren beraien esparruari buruzko gida-liburu bat egiteko asmoz. Emaizta kalean dago, Elhuyarrek argitaratuta.

Ekimenaren lehen pausua Osasungoa Euskalduntzeko Erakundetik Mendaroko ebakuntza-gelako gainbegirale den Aintzane Giralte bidalitako mezua izan zen, Agote sarien berri ematen zuena. Sarietak Agote traumatologoa zenaren omenez, osasungintzarekin lotutako euskarazko lanak bultzatzea du helburu.

Aintzane Giralte eta Marisa Meizoso parte hartzea erabaki zuten eta asmo horrekin ebakuntza-gelan egin beharreko lanari buruzko lagin bat egiten hasi ziren, lehiaketan aurkezteko modukoa. "Kirofanoko gure lanari buruzko liburuak badaude, baina betiere atal zehatzei buruzkoak, ez gure zeregin osotasunean hartzen dutenak. Guk liburu bakarrean oinarritukoena batu nahi izan genuen". Mendaroko kirofanoko gainontzeko lankideei laguntza eskatu eta guztien artean lanaren atalak eta helburuak zehaztu zituzten.

AGOTE LEHIAKETAKO SARIA


Beraien lana, *Erizaina kirofanoan, lehen hastapenak*, izan zen Agote lehiaketaren sariduna. Diru-saria jaso zuten eta, jakina, gai horri buruzko liburua osatzeko betebeharra. Mendaroko erizainen artean gai garrantzitsuenak aukeratzeko inkesta egin zuten. Horren ostean, aipatutako bost erizainak eta beste 15 elkartu, lauko taldeetan banatu eta talde bakoitzak gai bat aukeratu zuen. Gero etorri zen atal guztiei batasuna ematea. Luze jo

zuen zereginak, baina emaitzak merezi izan du. "Zailena izan zen hitz eta termino aproposak aurkitzea. Euskaraz oso bibliografia txikia dago gaiari buruz eta hitz asko itzuli behar izan genituen. Gainera, taldeetan denetatik zegoen: euskaraz betidanik zekitenak, ikasi berriak eta ezer ez zekitenak", kontatu zuen Aitziber Jaio.

Erizain hauek liburu praktikoa egin nahi izan dute, erizaintza ikasten dabiltzanei zein ebakuntza-gelara lanera heltzen direnei zuzendutakoa. "Askotan hantxe bertan ematen dizkiogu elkarri azalpenak ahoz, eta gauza horiek idatziz jaso nahi genituen", azaldu zigun Giralte, "baita kanpotik datozen langile berriek eta unibertsitatean lanbidea ikasten dutenek ere erabili dezaten. Izan ere, Mendaron langileen txandaketa handia dago, Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugan dago Mendaro" azpimarratu zuen. Berez liburuak atal asko ditu, baina kontsulta moduan erabiltzea da aukeretakoa bat, lanean zaudela edo lanera joan aurretik begiztatu daitekeena.

ONDO PRESTATUTA EGOTEA

Ebakuntza-gelan erizainak bete behar duen paperari dagokionez, argi dute esparrua oso berezia dela. "Prestaketa oso ona izan behar dugu eta uneoro eguneratuta egon behar gara, inon baino gehiago", azaldu zuen Aitziber Jaio. Esandakoari, "urduitasun uneetan ziurtasun handiz eta burua hotz dugula lan egiten ikasi eta askotan gerta daitekeen egoerei aurreratzeko ikasi behar" dutela gaineratu zuen David Sotok. Zailtasuna hala laburbildu nahi izan zuen Giralte: "Aurretik esperientzia luzea eduki arren, ebakuntza-gelara sartu nintzenean pentsatu nuen ia zerotik hasi beharra nuela. Baina asko ikasita sentsazio hori gainditu egiten da".



"Zailena izan zen hitz eta termino aproposak aurkitzea. Euskaraz oso bibliografia txikia dago gaiari buruz eta hitz asko itzuli behar izan genituen".



PROFESIONALENTZAT EUSKARAZKO KONTSULTA LIBURUA




Erizain hauek liburu praktikoa egin nahi izan dute, erizaintza ikasten dabiltzanei zein ebakuntza-gelara lanera heltzen direnei zuzendutakoa.



PRAKTIKOA

Erizainen gidak izaera praktikoa du eta ahalik eta erabilera handiena edukitzeko sortu dute.



Egileek *Erizaina Kirofanoan*, lehen hastape-nak izena jarri nahi zioten liburuari, baina izenburuaren bigarren zatia kentzea erabaki zuten. Horiek horrela, egileen esanetan liburua neurrikoa da beraien zereginaren xehetasun guztiak hartzen dituen, baina erabat sakondu nahi izan ez duena: "Liburu erabilgarri eta praktikoa egiteko asmoz ez ditugu gai guztiak luze eta zabal landu, baina diren guztiak hor-txe daude", azpimarratu zuen Roberto Canok.

Bestalde, David Sotok gogorarazi nahi izan zuen liburua egiterakoan ezarritako abiapuntua pazientearen segurtasuna izan zela, "horrek kirofanoan egiten den lan guztia erabat **baldintzatzen** duelako: pazientearen identifikazioa, alergiak dituen, zer **ebakuntza** mota egin behar zaion... Guztiak du erlazio zuzena pazientearen segurtasunarekin".

Kirofano barruan anestesista batek, **bi zirujauk** eta bi erizainek lan egiten dute. Liburuak erizain instrumentista eta erizain zirkulatzailearen figura eta zereginak erabat identifikatzeaz gain -instrumentistak laguntzen dio zirujauari ebakuntza egiten, eta zirkulatzaileak guztia kontrolatu eta koordinatzen du-, prozesu edo zirkuitu guztia atalez atal zerrendatzen du: higieena, asepsia eta esterilizazioa; unitate kirurgikoaren egitura; lanaren antolaketa, pazientearen artatzea; kirofanoan bereiztutako guneak eta bakoitzean kontuan hartu beharreko protokolo eta prozedurak... Arlo guztietan argibide ugari ematen ditu eta ez du zalantza izpirik uzten.

Zirkuituari dagozkion arlo espezifiko horiez guztiez, **aipamen** berezia egin diote, era berean, Etika eta lege arauak eta Kode deontologikoari. "Gure lanarekin lotuta beti **ahotan ditugun** oinarriak dira, baina behingoz idatzita edukitzea oso komenigarria zen", argitu zuen Giraltek.

Liburua Mendaroko esperientzian oinarrituta badago ere, edozein ospitale-tan erabiltzeko egina dago.

Informazio gehiago: www.elhuyar.org/edizioak

Aipamen: *Mención.*
Baldintzatu: *Condicionar.*
Behingoz: *Por una vez.*
Ebakuntza: *Operación.*
Ebakuntza-gela: *Sala de operaciones.*

Norbaitek ahotan izan: *Estar en boca de alguien.*
Zirujaua: *Cirujano.*

EUSKADIKO DOWN SINDROMEAK ETA BESTE ADIMEN URRITASUNEN FUNDAZIOA BAZKIDEEN BIZITZA KALITATEA ETA ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO EKIMEN IRMOA

EUSKADIKO DOWN SINDROMEAK ELKARTEA 1990EAN SORTU ZUTEN SEME-ALABEEI ONENA EMAN NAHI ZIETEN GETXOKO GURASO BATZUEK. GARAI HARTAN GIZARTEAK EZIN ZUEN IRUDIKATU DOW SINDROMEAK ZUTENEN ETORKIZUN AUTONOMORIK. GERORA FUNDAZIOA ERATU ETA EUSKADI OSOKO UME, GAZTE ETA HELDUEI BERAIEK KABUZ BIZITZEKO ERREMINTAK EMANEZ, AURRERAPAUZO GARRANTZITSUAK EMAN DITUZTE.



Gaur egun Bilbon dute egoitza nagusia eta Zornotzan ere bada beste bat, baina luzaroan Getxon ere izan zutenaren antzera. Izan ere, Getxon hasi zen gaur egun fundazioa denaren ibilbidea. Down sindromea zuten ume haien gurasoek informazio eta babes premia zuten, baina inork ez zien esan nora joan eta zer egin. Lokal txiki bat lortu eta Cantabria eta Madrilgo elkarteekin harremanetan jarri ziren. Hasieratik oso argi izan zuten beraien umeen asistentzia bermatzea baino askoz gehiago nahi zutela; autonomia eta integrazioa muturreraino lantzea, hain zuzen ere. Helburu horrek hasieratik beste elkarteetatik desberdindu zituen.

Elkartea handitu eta Bilbora jo behar izan zuten bazkide guztiei zegokien erantzuna emateko. Haztearekin bat gero eta programa gehiago sortu zituzten, adin eta egoera gehienetara egokituta zeu-

denak. Gainera, sasoi hartan derri gorrezko eskolatzeari onartu zen. Fundazioko koordinatzaile Resu Casanovaren ustez eskolatzeari oso garrantzitsua izan zen, baina bestelako urgentziatzeko lanak ere ekarri zituen: “Irakasleek ez zekiten Down sindromea zer zen eta haien trebakuntza landu behar izan genuen. Horrekin batera, ikasle guztien hezkuntza prozesuaren jarraipena egiten dugu”.

Casanovak aitortu digu ospitaleetan Down sindromea duten umeen familiak ospitaleetan ez ditzutela beraiegana bideratzen.

“Irakasleek ez zekiten Down sindromea zer zen eta haien trebakuntza landu behar izan genuen”.

ETENIK GABEKO PRESTAKUNTZA

Fundazioko bazkideak ikasteko eta prestakuntza jasotzeko gogoz egoten dira; irudian euroekin kontuak egiten.

“Ez dago inongo protokolorik, eta askotan lagun baten lagunak esanda etortzen dira guregana”. Gizarteak Down sindromea duten pertsonak ikusteko modua aldatu dela diosku. Aldaketarako zeresan handia du autonomia handiagoa hartzeko gaitasuna dutela behin eta berriro egiaztatu izana. “Gurasoen jarreraren ere somatu da aldaketa. Iraganean lur jota etortzen ziren, baina gaur egun badakite aurrera egiteko bideak daudela”. Behin familiak elkartera hurbiltzen direnean, fundazioak informazioa ematen die eta Gurasotik Gurasora programaren bitartez Down sindromea duten umeen beste guraso batzuekin harremanetan jartzen dituzte.

BESTELAKO ADIMEN URRITASUNAK

Informatzeaz Elkartea eta gerora fundazioa Down sindromea dutenei laguntzeko sortu bazuten ere, urteak joan ahala bestelako adimen urritasunak dituztenak ere artatzen hasi ziren, eta fundazioaren izena Down sindrometik harago luzatu zuten. “1994an Aldundiak arreta goiztiarra programa kendu eta familiei diru-laguntzak eman zizkien zegokien elkartera jo eta han behar zituzten programak egin zituzten. Arazoa da ez zegoela argi jaioberri batzuek zer urritasun mota zuten eta ezin zituztela horiek elkarte zehatzetara bideratu. Horregatik, gure gain hartu genituen horiek guztiak”.

ADIN GUZTIETARA EGOKITUTAKO PROGRAMAK

Euskadiko Down sindromea eta beste adimen urritasunen fundazioaren ezaugarri bereizgarrienetako bat da Down sindromearen etapa eta adin guztiak bere



gain hartzen dituela. Horregatik, premia guztietara zuzendutako programak dituzte: jaioberriena, eguneko zentroa, laguntza psiko-pedagogikoa, eskolatzaren jarraipena, Gurasotik gurasora, aisialdia, lanerako prestakuntza, etenik gabeko prestakuntza, lan-gizarteratzea, autonomia, bizitza independentea eta beste batzuk.

Horietatik guztietatik bi oso bereziak dira: batetik, bazkideen autonomia eta erabakitzeak hartzeko gaitasuna lantzen duen Entzun Gure Nahia, dagoeneko elkarte propio eratu dena. Elkar-te horretako partaide asko lanean daude dagoeneko baina elkartzen jarraitzen dute, eta, familia berriei zalantzak argitzeaz gain, eredu aproposa dira familien txikien etorkizunera begira. Bestetik, bizitza independentea garatzeko sortutako Etxeratu programa. Bi etxebizitza pilotu dituzte eta horietan bere kabuz bizitzen eta bizikidetzat lantzen ikasten dute. Fundazioaren uneko erronka nagusia da bazkideen eta familien zahartzaroi nola egin aurre.

ADIN GUZTIENTARAKO

Fundazioak adin eta premia guztietarako programak eramaten ditu aurrera.

¿QUÉ ES EL SÍNDROME DE DOWN?

Es un trastorno genético causado por la presencia de una copia extra del cromosoma 21 (o una parte del mismo), en vez de los dos habituales (trisomía del par 21), caracterizado por la presencia de un grado variable de discapacidad cognitiva y unos rasgos físicos concretos. Es la causa más frecuente de discapacidad cognitiva psíquica congénita. No se conocen las causas, aunque se relaciona estadísticamente con una edad materna superior a los 35 años. Estas personas tienen una probabilidad algo superior de padecer algunas patologías, especialmente de corazón, sistema digestivo y sistema endocrino, debido al exceso de proteínas sintetizadas por su cromosoma de más. Las terapias de estimulación precoz y el cambio en la mentalidad de la sociedad están suponiendo un cambio cualitativo positivo.



Elkartearen datuak

EUSKADIKO DOWN SINDROMEA ETA BESTE ADIMEN URRITASUNEN FUNDAZIOA

Begoñako Andra Maria
12-14, atzea.
Bilbo.(Bizkaia).

Nafarroa kalea z/g
Zornotza. (Bizkaia).

Tlfno: 94 6611222
www.downnpv.org
down@downnpv.org

Zer eskaintzen du fundazioak?

Adimen urritasun agiria duen edozeinek edo horien senitartekoei jo dezakete fundaziora. Aproposena da Bilboko egoitzarekin, zentralarekin, harremanetan jartzea. Bilboko egoitza astelehenetik ostiralera, 08:30etik 19:30era, zabalik dago eten gabe. Adin eta premia guztietarako zerbitzuak eskaintzeaz gain, diru-laguntza eta legediari buruzko informazio zabala ere eskaintzen dute; eta Down sindromeari buruzko hitzaldiak eta prestakuntza egiten dituzte.

CRISTOBAL BALENCIAGA MUSEOA

NAZIOARTEKO MUGAK GAINDITUTAKO GETARIAKO ARTISTAREN ONDAREA

IAZKO EKANEAN INAUGURATU ZUTEN GETARIAN CRISTOBAL BALENCIAGA MUSEOA. LUZE JO DU PROIEKTUAREN GAUZATZEAK HAINBAT TIRABIRA DIRELA MEDIO, BAINA AZKENEAN GIPUZKOAKO KOSTALDEAN BERTAN JAIOTAKO MUNDUKO JOSTUN ONENAREN OMENEZKO MUSEOA ZABALIK DAGO ETA JAKIN-MIN HANDIA PIZTU DU BERTAKOEN ETA KANPOTARREN ARTEAN.



Getaria herriaren goialdean dago museoa eta eraikina bera ikusgarria da oso. Kristobal Balentziagak eta bere amak joskintza ezagutu zuten Aldamar jauregiak eta hari itsatsita egindako beirazko eraikin erraldoiak osatzen dute museoa, jostunaren izen bera duen fundazioak kudeatzen duena.

Museoaren eraikin berria Kubako Julian Argilagos arkitektoak diseinatu zuen; eta gerora, obren jarraipena eta interiorismoko diseinu lan guztia Kataluniako AVS 62 estudioaren ardura izan da. Emaizta ezohikoa da, bisitaria harrituta uzten duena. Izan ere, oso ikusgarria da, handia, eta barruan dituen gunek funtzionaltasun handia errazten dute. Gainera, eraikin berriaren eta zaharraren arteko desberdintasun nabarmenak kontraste apurtzailea eragiten du.

Museoko behin betiko erakusketak edo erakusketa iraunkorra zazpi gunetan banatuta dago: Sarrera, Hasierako Urteak, Eguna, Koktela, Gaua, Emaztegiak eta Funtsezko Lanak. Bertan une honetan Balentziagak diseinutako 70 soineko eta jantzi, eta 20 osagarri (txapelak, bitxiak...) daude ikusgai.

1.200 PIEZAZ OSATUTAKO BILDUMA

Baina museoaren proiektua sortu zenetik fundazioak lan ugari jaso eta berreskuratu ditu eta gaur egun 1.200 bat pieza ditu batuta. Eta, zer esanik ez, bilduma hori handitzeko lanean jarraitzen dute. Dena dela, Getariakoa, artistaren jaioterrikoa, da munduan dagoen Balentziagari



buruzko museo handiena eta era berean getariarraren kronologia eta ibilbidea hobeen jasotzen duena; baita hastapenetako lan gehientsuenak gordetzen dituen ere. Nazioartean badira bestelako bilduma eta erakusketak, baina espezifikagoak dira: horra hor, New Yorkeko Metropolitan Museumekoa, Londresko Victoria & Albert Museumekoa eta Parisko Musée des Arts Décoratifekoa, besteak beste.

BI ERAIKIN

Aldamar jauregiak eta hari itsatsita egindako beirazko eraikin erraldoiak osatzen dute museoa.

Soinekoak eta jantziak ugari, baina lan horien patroia oso gutxi ditu fundazioak, oraindik erakusgai jarri ez dituztenak. Gabezia hori nolabait saihesteko egin dutena da lan-talde espezializatu bat kontratatu eta horrek jantzi-tan oinarritutako patroiak sortu. Prozesu hori guztia jasota dago Funtsezko Lanak izeneko aretoan ikusgai jarritako ikus-entzunezkoan. Gerora erakusgai jarriko dituzten bildumekin ere gauza bera



FUNDAZIOAK

lan ugari jaso eta berreskuratu ditu eta gaur egun 1.200 bat pieza ditu batuta. Nazioartean badira bestelako bilduma eta erakusketak, baina espezifikokoagoak dira.

ikusgai; museoa zabaldu zenetik lehenengo aldia izango da.

Fundazioaren bildumatik badira pieza batzuk Monacoko monarkiak gordailuan utzitakoak edo familia eta erakunde pribatuk zein publikok museoa kudeatzen duen erakundeari dohaintzan emanak.

Erakusketa iraunkorretik jendearen gune kuttunena zirkuituko azkena da, Funtsezko Lanak izena duena, Balentziagaren lanaren sintesia dena. Eta, horrekin batera, bisitariak oso gustuko dituzte, baita ere, Emaztegaiak eta Gaua izena dutenak, seguruenik ikusgarrienak direlako. Eta, nahiz eta fundazio-ko arduradunen esanetan artistikoki hain esanguratsuak ez izan, jendearen arreta handia deitzen dute Fabiola erreginarene eta Grace Kellyren soinekoak; izan ere, horiek XX. mendeko historiaren lagin garrantzitsuak dira-eta. "Altxor asko daude bilduman, ugari, eta garrantzitsuena da Balentziagaren etapa guztietako lanak aurki daitezkeela; hortaz, bere bilakaera osoa ezagutu daiteke, beste inon ez bezala", aitortu dute fundaziotik.

BEHIN-BEHINEKO BESTELAKO ERAKUSKETAK

Bestalde, museoa zabaldu zute-nean iragarri bezala, aipatutako erakusketa handiaz gain, bestelako muestra txikiagoak, behin-behinekoak, antolatuko dituzte. Lehena martxoaren 9an zabalduko dute, baina lerro hauek idazterako orduan fundazioak oraindik ezin zuen gaia aditzera eman. Gero-ra, gainera, udan eta udazkenean beste batzuk egiteko asmoa dute. Muestra horiek modari buruzkoak

izango dira eta ez dira guztiak Balentziagari lotuta egongo. Museoa- ren eraikin zaharreko, Aldamar jauregi-ko bi solairutan kokatuko dituzte.

Astelehena ezik, museoa egunero dago zabalik. Asteartetik ostegunera 10:30etatik 17:00etara; ostiral, larunbat eta jai bezperetan 10:30etik 20:00etara; eta igande eta jai egunetan 10:30etatik 18:00etara. Egunero bi bisita gidatu egiten dituzte goizez eta arratsalde, bata euskaraz eta bestea gazteleraz. Horrez gain, aurretik eskatuta, posible da hizkuntza horietan zein ingelesez edo frantsesez bestelakorik egitea.

BISITARIEN AURREIKUSPENAK BIKOIZTU

Fundazioko arduradunen esanetan, museoa zabaltzerako orduan aurreikuspen zehatz batzuk egin zituzten eta dagoeneko hori bikoiztu dute. Ez dute zenbakirik eman, baina oso baikor dira harrerarekin. Bisitari gehienak Euskal Herrikoak dira, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak batez ere, baina kataluniarrak, madrildarrak eta frantsesak ere asko dira. Dagoeneko Euskal Herriko museo garrantzitsuenen zirkuituan dago Balenciaga eta batetik bestera bideratzen dituzte bisitariak. "Horrez gain, nabarmendu nahi dugu guretzat oso albiste ona izan dela jakitea bertakoek ere museoari halako harrera ona egingo ziotela. Kanpotarrez gain, bertako hainbat jende hurbiltzeak asko poztzen gaitu", esan digute fundaziotik.

Bisitariak dagokionez, gehienak emakumeak dira, baina gazteen artean bai gizonezkoak eta bai emakumezkoak joaten dira museora. Are gehiago, publiko orokorra erakartzea lortu dutela nabarmentzen dute. "Ikasle eta diseinatzaileek inspirazio bila jotzen dute, beste batzuek gogoeta eta historia bila, badira Balenciagaren bizitza ezagutu nahi dutenak, eta baita gauza ederrak ikusteko gogoia dutenak ere". Orain, gainera, hasi dira ikasleekin tailerrak antolatu eta bildumako pieza batzuk sakonki aztertzen. Ildo horretatik ere jarraitzeko asmoa dute.

Informazio gehiago:
www.cristobalbalenciagamuseoa.com

egiteko asmoa dute, museoa bisitatzeko dutenek prozesu osoa ezagutu dezaten.

BILDUMA IRAUNKORREAREN TXANDATZEA

Hain bilduma erraldoia izanik, fundazioak aurreikusita dauka urtean behin bilduma iraunkorreko muestra txandatzeari. Hortaz, apirilean, Aste Santuko oporren ostean, gaur egungoak ordezkatu eta beste pieza batzuk jarriko dituzte


BI ERAIKIN

Aldamar jauregiak eta hari itsatsita egindako beirazko eraikin erraldoiak osatzen dute museoa.

KRISTOBAL BALENTZIAGA, JOSKIN GUZTIEN GAINETIK



Kristobal Balentziaga Getarian jaio zen 1895ean. Bere amak Casa Torreko markesarentzat lan egiten zuen eta Kristobalek han ezagutu zuen moda hurbiletik. Markesak Kristobal tentatu egin zuen joskintzan aritzeko eta gaztetxoaren gaitasuna ikusi zuenean kanpoan ikastera animatu zuen. Berehala joskin ikasi eta bere lan propioak egiten eta saltzen hasi zen. Euskal Herrian hainbat denda zabaldu zituen eta 42 urterekin, ospe handia eta bezero asko zituela, Parisera jo zuen. Han bere lanek ustekabea eragin zuten. Horren adibide da Chanelek berak esan izana Balentziaga zela jostun bakarra, prozesu osoa menderatzen zuelako, eta gainontzeko joskin guztiak haren aprendizak. 1972ko martxoan hil zen arte nazioarteko pertsonalitate ezagunak jantzi zituen, monarkietatik hasita aktore eta politikari ezagunei. Parisen egindako lanak ezagunenak badira ere, Cristobal Balenciaga fundazioari esker izen bereko museoan Balentziagaren hastapenetako lanak ere azalera eman dituzte eta edozeinek ikus ditzake.



MUSEO CRISTOBAL BALENCIAGA,

LA RAÍZ DE LA VANGUARDIA
EN LA MODA

El Museo Cristobal Balenciaga se inauguró en junio del pasado año y está situado en lo alto de Getaria, localidad donde nació el modisto más creativo e influyente de la moda internacional. Dicho museo está gestionado por la Fundación Cristobal Balenciaga y ésta cuenta con más de 1.200 creaciones del autor. De ellas están actualmente expuestos 70 vestidos y trajes, y 20 complementos en la exposición permanente. No obstante, dicha exposición irá renovándose anualmente y a finales de abril expondrán otra colección. El de Getaria es el museo que más obras del modisto cuenta y muestra obras de toda su trayectoria a diferencia de las colecciones de París, New York y Londres

La exposición irá **renovándose anualmente**. A finales de abril expondrán otra colección.



KARLOS IBARGUEN |

EMERGENTZIAK-OSAKIDETZAKO ANBULANTZIEN KOORDINATZAILEA

ZAINKETA INTENTSIBOETAKO ESPEZIALITATEA EGIN ZUEN IBARGURENEK BAINA DONOSTIAKO ANBULANTZIAN DU PLAZA. 15 URTETIK GORA DARAMATZA LARRIALDIETAN LANEAN ETA GAUR EGUN EMERGENTZIAK-OSAKIDETZAKO ANBULANTZIEN KOORDINATZAILEA DA. BERTSOZALEA ERE BADA; GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAN EPAILE LANETAN JARDUN DU.

1 | Zer egiten zaizu zailena zure lanean?

Guztia ondo joan denean oso atsegina da esatea "espero genuena lortu dugu", baina familiari eta gaixoari albiste txarrak ematea gogorra da.

2 | Larrialdietan itxarroteaz kexatzen dira asko, baina zuek ahal bezain azkar joango zarete, ezta?

Larrialdia ateratzen den momentuan irteten da ambulanzia. Gaixoari suerta dakiok momentu horretan inguruko ambulantiaren bat okupatuta egotea eta berak nahi duena baino gehiago itxaron behar izatea. Gure lanean ez dugu itxaron zerrendarik.

3 | Larrialdietan lanean ari den profesionalak ze gaitasun izan beharko luke?

Larrialdiak era askotakoak izan daitezke eta denetik jakin behar dugu ondo erantzuteko. Askotan berdin zaigu zein den azken diagnostikoa; inporta zaiguna da patologia horrek momentu horretan zergatik jartzen duen bizitza arriskuan. Hori da tratatu behar duguna. Gero espezialistak esango du zein izen-abizen dituen gaixotasun horrek.

4 | 'Elektrokardiografia klinikoa' liburua egin zenuten Felix Zubiak eta zeuk 2007an. Zerk bultzatu zintuzten horretara?

Osasungoa euskalduntzeko erakundeak saria deitzen du unibertsitatean egon daitezkeen hutsuneak betetzeko helburuarekin eta ikusi genuen elektrokardiografiaren inguruan ez zegoela euskaraz ezer idatzita. Intentsiboetan gaixo kardiako asko ikusten ditugu eta elektrokardiografia guretzat oso tresna garrantzitsua da.

5 | Gaur egun leku askotan ikusten dira desfibriladoreak. Bizitza asko salbatzen dituzte?

Bai, baina garrantzitsua da desfibriladorearen aurreko pausoak azkarra eta onak izatea. Nahi dugu sintomak dituen gaixoa edo lekukoak deitzea geldialdia sortu baino lehen eta han egon nahi dugu geldialdia sortzen den momentuan. Gainera, nahi dugu lekukoak hasi dezan lehenengo **berpizte** hori, hau da, masajearekin hastea. Beti da hobeto zerbait egitea, ezer ez egitea baino.

6 | Bertso-saio klinikoa antolatuko duzue aurten?

Aurtengo deialdiarekin **buru-belarri gabiltza**. Martxoaren 9an egingo dugu eta ea aurten jende gehiago animatzen den.

7 | Bertso-errimak ere sendagariak izan daitezke?

Oraindik profesional euskaldunok gure artean termino batzuk erdaraz erabiltzen ditugu eta horrelako gauzek balio dute termino horiek euskaraz erabiltzeko ohitura har dezagun. Bestetik, gure artean ezagutzeko ere balio du.

8 | Larrialdietan bertsotarako gai asko sortuko zaizkizue, ezta?

Bertso-sortak egiteko gaiak badaude eta ez beti tragikoak. Batzuetan umorezkoak eta bukaera zoriontsua duten bertsoak egiteko moduko gaiak ere baditugu.

"BERTSO-SORTAK EGITEKO GAIK BADAUDE ETA EZ BETI TRAJIKOAK"

Berpiztea: *Reanimación*
Buru-belarri ibili: *Trabajar con afán.*
Zainketa intentsiboak: *Cuidados intensivos.*



“30 URTEREKIN EUSKARA BERRESKURATZEA ERABAKI ETA NIRE BIZIMODUA EUSKARATU NUEN”

JULIAN IANTZI

ENTRENATZEN HARRAPATU DUGU IANTZI, ACONCAGUARA JOATEKO PRESTATZEN. **BIZIRAUPEN** ETA ABENTURA PROGRAMATAN LAN EGITEAGATIK EZAGUNA BADA ERE, KIROLA ETA **ERRONKAK** BERE BIZITZAREN ATAL GARRANTZITSUAK DIRA. LESAKARRAK 11 URTE DARAMATZA TELEBISTAN, ETBN ETA ESPAINIKOETAN, LANEAN. NATURALITASUNA DA BERE KOMUNIKATZEKO TRESNA NAGUSIA.

Casting asko egin zenituen telebistan sartzeko?

Ez. Emazteak konbentzituta egin nuen proba, naturala eta saltseroa naizela esaten zidalako. Aurretik informatika programatzaile, ostalaritzan, aseguruak saltzen... ibilia nintzen. 2001n ETBk bere datu basea berritzeko castingak egin zituen, 10.000 lagun aurkeztu ginen eta horietatik 200 hartu zituzten, tartean ni. Sasoi berean Nafarroako Canal 4n beste casting bat egin nuen eta *La guarida de Camil* zuzeneko saioa aurkezteko hartu ninduten. Azkenean afizioi zena ofizio bihurtu zitzaidan. Gero ETBn eta jarraian etorri ziren *Sorginen Laratza*, *Begia Gose*, *Basetxea*, *Flecha Amarilla*... Orain ere audientzia oso ona duten *Conquistador del fin del mundo* eta *Conquistador del Aconcagua* lanean dihardut. Begoña Marañonek ‘Kamara aurrean ahalik eta hoberen pasa, zuk gainditu kamara’ aholkua eman zidan, eta aitak, berriz, ‘Gai-nontzekoek egiten ez dutena egin, polifazetikoa zarela erakutsi’.

Betidanik egin duzu kirola, ezta?

Bai. Gaztetxotan pilotan Tafallako Grawneko Aurretzapelketan kategoria guztiak irabazi nituen eta Espainiako Txapelketan Nafarroa ordezkatu nuen. Baina udan eta as-teburuetan Ibardinen lanean hasi eta eskuak **beratzeaz** gain, entrenatzeari utzi nion. Gerora, futbolearen ere luzaroan jokatu nuen. Betidanik egin dut kirola, baita orain ere. Gainera, marka bitxiak ere baditut: estratosferaraino heldu den euskaldun bakarra naiz. 2.000 kilometro orduko hartzen dituen hegazkinean igo nintzen; 10.000 metrotik salto egin dut paraxutean... Eta orain gogor nabil Aconcagua igozteko entrenatzen.

“Estratosferaraino heldu den euskaldun bakarra naiz. 2.000 kilometro orduko hartzen dituen hegazkinean igo nintzen”.



“**Conquistador** ez da **Ironman** bat, ez da **kirol txapelketa** soila, **hau** **reality** bat da. **Lehia** **bakarrik** **balitz**, **jende** **askok** **ez** **luke** **ikusiko**”.

Biziraupen **programatan** **elkar-**
bizitza, **lehia** **eta** **iraupena** **dira**
balore **garrantzitsuenak**?

Bai. Gu ez gara sartzen morboan, ez amodio kontuetan. Guk eskaintzen dugu abentura bat non lehiatu beharra den helburu batzuk lortzeko, eta guk egoera estutzen dugu, bakoitzak bere mugak eza-gutu ditzan. Gainera, lehia eta biziraupenaz gain, elkarbizi behar da. Hotza, gosea, aurten hasteko arropa **aproposik** ez ... Gauza deseroso asko daude eta ez da batere erraza.

Aurten kritikatu gaituzte *freak* -ak hartu ditugula esanez. *Conquistador* ez da *Ironman* bat, ez da kirol txapelketa soila, hau reality bat da. Lehia bakarrik balitz, jende askok ez luke ikusiko. Horregatik, beste-

lako osagai batzuk sartzen ditugu, pertsona bitxiak, seguruenik lehia ez, baina hasieran jokoa emango dutenak. Castingean lan handia dago. Igandetan gehien ikusi den programa da, eta Espainiako telebistetako serie baten kapitulu bakarrak *Conquistador* osoaren pareko aurrekontua du.

Iruten faltan botatzen dituzu Korta eta Juanito? Gogorra da beraiekin lan egitea?

(Barre). Harreman ona dut kapitain guztiekin. Baina han bakoitzak bere esparrua defendatu behar du. Guk ez dugu antzezten, han ez dago gidoirik (beraiek, nik bai), baina bakoitzak gogor borrokatzen du. Baina Patagonian gertatzen dena han gelditzen da. Haserreak benetakoak badira ere, lagunak gara.

KIROLARIA

Oso gaztetxotatik pilotan eta futbolean jokatu du eta orain ere egunero egiten du ariketa fisikoa. Akonkaguara igotzeko prestatzen dabil.

Euskararen erabileraren onura goraipatzen diharduzu...

Bai. Gaztetxoei hitzaldiak ematen dizkiet, euskara jakin bai, baina erabiltzen ez dutelako. Ni gaztetan gazteleraz hitz egitera behar ninduten eta euskara galtzeko zorian izan nuen, 30 urterekin euskara berreskuratzea erabaki nuen arte. Orduan euskaratu nuen nire bizimodua, eta horri esker ETBn sartzeko aukera izan nuen. Ni gaur egun aurkezle naiz, besteak beste, euskararengatik. Gaztetxoei esaten diet nik egoerari buelta eman niola, ohiturak aldatzea arraroa dela, ez zaila. **Belaunaldiz belaunaldi** jaso dugunari bizirik eutsi behar diogula, eta euskara egiteak guztia duela ona. Gure altxorra izatearekin bat, euskara modernoa da, komunikatzeko aproposa.

Aproposa: *Adecuado.*

Beratu: *Ablandar.*

Belaunaldiz belaunaldi: *De generación en generación.*

Biziraupena: *Supervivencia.*

Erronka: *Reto.*

“**Euskara** **modernoa** **da**, **komunikatzeko** **aproposa**”.



AMA IZATEKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA EUSKARAZ JASOTZEKO AUKERA DAGO BILBON

BILBOKO HAURDUN EUSKALDUNEK AMA IZATEKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA EUSKARAZ JASO AHAL IZANGO DUTE AURRERANTZEAN. RUBEN MONTERO MATIA ETA MIREN RAMOS HERRERA SANTUTXU SOLOKOETXEKO EMAGINEK, ETA LEIRE SAGASTIZABAL BILBO ESKUALDEKO EUSKARA TEKNIKARIAK HAURDUNEN PROZESURAKO DOKUMENTAZIOA SORTU DUTE EUSKARAZ, "ZERBITZUA BERME OSOZ ESKAINI AHAL IZATEKO".

Haurdunaldiko zainketa, erditzea eta erditze osteko zainketa, edoskitzea, masajea, haurren zainketa... hitz hauek eguneroko bizitzan erabiltzen ez badira ere, emaginaren eta haurdunen arteko hartu-emanen oso ohikoak dira. Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat tokitan ama izateko prestakuntza zerbitzua dagoeneko euskaraz eskaintzen da, baina ez guztietan. Etorkizunean Bilbo eskualdean zerbitzua euskaraz jasotzeko aukera egongo da, Javier Saenz de Buruaga osasun zentroan hain justu ere.

ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Ruben eta Miren emaginak dira Santutxu Solokoetxeke Osasun Zentroan. Lehen hasiberria da, Miren berriz esperientziaduna, baina bientzat emaginaren eta haurdunaren arteko informazioa eta komunikazioa ezinbestekoa da eskaintzen duten zerbitzua ona izateko. "Euskaraz zein gazteleraz, oso garrantzitsua da ama izango denaren eta haren bikotearen eta emaginaren arteko komunikazioa zuzena izatea". Zer da erditze arrunta? nola izaten da prozesu arrunta? nola jokatu behar da erditzea hasterakoan? noiz gerturatu behar da ospitalera? etxean erditzeko aukerarik badago? nolakoa da edoskitzearen prozesua?... Horiek izaten dira emaginek jasotzen dituzten galderarik arruntenak, eta galdera horiei ahalik eta ondoen eta argien erantzutea oso garrantzitsua dela adierazi digute.

HILEROKO ARTATZE ZERBITZUA

Haurdunarekin konfiantzazko harremana lortzea izaten da emaginaren helburua eta horretarako hilerok elkartzen dira. "Gure arteko hartu-emaña oso gertukoa izaten da, konfiantzazkoa. Izan ere, gizarteak aldatu egin da eta gaur egungo familiak normalean txikiak dira, gizarteak indibidualistagoa da eta bikote askok ez dute etxean haurdunaldiaren gaineko informazioa edukitzen". Mirenen eta Rubenen esanetan, askok haurdun egon arte ez dakite zer den ume bat edo haurdun egotea, eta horren aurrean, emagina erreferentziazko pertsona bilakatzen da prozesu guztian.

ARRISKUAK ETA BELDURRAK

Emaginak argi eta garbi hitz egi-tera behartuta daude, eta erditzea une oso intentsua eta arriskutsua dela aipatzera behartuta daude. Une zoriontsuena edo tristeena bilakatu daiteke. "Normalean argi eta garbi hitz egiten dugu, hasieran haurdunaldian nola zaindu behar diren azaltzen diegu, era arruntean haurdunaldia bizitzen animatuz". Erditzea gerturatzen doan heinean berriz, erditzearen inguruan azalpenak ematen dizkiegu. "Erditzea une intentsua dela esaten diegu, une arriskutsua dela gaineratuz, eta beldurrari nola aurre egin behar dioten ere azaltzen diegu". Gaur egun, haurdunaldi guztia kontrolpean eramanez gero, arazo asko ekidin daitezkeela gaineratu digute Rubenek eta Mirennek.

GIZONAREN EDO BIKOTEAREN PARTE HARTZERA PROZESUAN

Gizartearen garapenarekin joerak aldatzen ari dira. Gero eta gizon gehiago dago emaginen artean, eta dagoeneko ez da emakumezkoen arloa bakarrik, nahiz eta oraindik ere emaginen artean emakumezkoak izan gehienak. Era berean, kontsultara gerturatzen direnen artean ere, gero eta gehiago dira emakumeekin etortzen diren gizonetakoak. "Haurdunaldia gertutik bizi dute, informazioa jasoz eta bikotearekin konpartituz prozesu guztia. Pertsona horiek prozesu guztia bizitzea oso garrantzitsua da. Izan ere, emakumeek erreferentzia bat behar dute, babesa eta laguntza behar dute. Oso osasuntsua izaten da emakumearentzat zein haurrarentzat".

EUSKADIN GERO ETA GEHIAGO DIRA ETXEAN ERDITZEA ERABAKITZEN DUTEN EMAKUMEAK. OSAKIDETZAK MOMENTUZ EZ DU ZERBITZU HORI ESKAINTZEN, BAINA ERAKUNDEAN LANEAN DIHARDUTEN EMAGINEK, ERA AUTONOMOAN, EGITEN DITUZTE. SEGURTASUN NEURRIEZ ETA BALDINTZEZ HITZ EGIN DUGU RUBEN MONTERO ETA MIREN RAMOS EMAGINEKIN.

**“ERDITZEA BETI IZAN DA PROZESU ARRUNTA, NAHIZ ETA ARRISKUAK IZAN”**

Gaur gauean bertan etxe batean egon zarete, erditze bat artatzen. Gero eta gehiago dira aukera horren alde egiten duten emakumeak?

Aspaldi etxeetan erditzen zen, gero ospitaleetan eta etorkizunean bueltatu gaitezke bitariko prozesu batera. Etxebizitzan erditu nahi duenari zerbitzua eskaini beharko lioke sistemak. Alegia, Osakidetza etxeko erditze zerbitzua eskaintzearen aldekoak gara gu, nahiz eta badakigun beste mediku eta emagin asko ez direla horren aldekoak.

Etxean erditzen denean, zeintzuk dira hartu beharreko segurtasun neurriak?

Lehenik eta behin, emaginak haurdunaldi guztiaren jarraipena egin behar du, eta erditzearen unean bertan egon behar da. Eta, era berean, ospitale batetik gertu egon behar dugu. Haurdunaldian dena ondo joan bada, ez da zergatik arazorik sortu behar erditzearen unean, eta azaroak sor daitezkeela ikusten badugu, ospitalera joan beharra daukagu.

Zuek artatu dituzue erditzeak etxebizitzetan, ezta?

Bai. Gehienak oso urduri etortzen dira. Guk etxebizitzetan egiten diren erditzeak artatzen ditugu eta uste dugu erditzeak arruntak izan behar direla, gure esku-hartze ahalik eta txikienearekin. Uste dugu etxean zein ospitalean eman daitezkeela baldintza egokiak erditzeko.

Emakumeek badakite badutela aukera etxean erditzeko?

Uste dugu baietz. Edozelan ere, emakumeek eta haien bikoteek informazioa izan behar dute erabakia hartzeko. Emakumeak eskubidea dauka erditzearen unean aukeratzeko norekin eta non erditu gura duen.

Eta erditu ondoren, edoskitzea dator, hau ere hautu pertsonala.

Dudarik gabe, baina arlo horretan ez dago eztabaidarik, **jaioberriaren** zein amaren osasunarentzat onena da **bularra ematea**, hori badakigu. Hasiera gogorra izan daiteke amarentzat, esnearen igoera mingarria izan daiteke, baina emakumeek jakin beharra dute haurrarentzat eta beraien errekonferentziarentzat bularra ematea oso osasuntsua dela.

Bukatzeko, zein da haurdunen galderarik ohikoena?

Nola jakin dezakegu erditzeko unea iritsi dela? Hori da emaginok jasotzen dugun galdera ohikoena. Minaren gainean ere galdera asko jasotzen ditugu.

Eta aurrerantzean zerbitzu hau euskaraz jasotzeko aukera izango da Bilbon, ezta?

Dagoeneko badago, baina momentuz ez du arrakasta handirik izan. Euskaraz informazio hori guztia jasotzeko ahalegina egin dugu eta Bilboko euskaldunei zerbitzua eskaini nahi diegu. Ea animatzen diren!

Arrakasta: Éxito.

Bularra ematea: Amamantar, dar pecho.

Edoskitzea: Lactancia.

Emagina: Matrona.

Erditze ostea: Postparto.

Haurdunaldia: Embarazo.

Hartu-eman: Relación.

Jaioberria: Recién nacido.



ARAMAIOKO OSASUN ZENTROA “HERRI TXIKIETAN ERRAZAGOA DA GERTUKO HARREMANA”

ARRASATETIK ARABARANTZ, ARAMAIO IBAIAN GORA, MENDI ARTEAN EZKUTATUTA DAGOEN HERRIRA IRITSI GARA. BIZKAIA, GIPUZKOA ETA ARABAREN ARTEKO MUGAN DAGOEN HERRIA DA, ZUIAKO KOADRILAN. GAUR EGUN, ARAMAIOK 1.500 BIZTANLE DITUEN HERRI DOTOREA DA.

Lanpetuta dabilta Aramaioko Osasun Zentroan, pazienteak **itxaron gelan** eta artatze gunean jendearen **joan etorria** etengabekoa da. Mari Karmen Arrondo erizainarekin egin dugu **hitzordua** eta esan digunez, hamar urte daramatza lanean bertan. “Lan handia izaten dugu eta gogorra da, baina gustura egiten dena”, aitortu digu erizainak. Pazienteekin harreman estua eta **gertukoa** dute Aramaioko anbulatorioan eta nabarmena da euren arteko konfiantza. “Herri txikietan errazagoa da gertuko harremana”, azaldu digu Arrondok.

ZERBITZUAREN ARABERAKO ESKaintza

Lehen mailako zerbitzua eskaintzen dute, 14 urtetik gorako bizilagunei, eta lan taldea bi langilek osatzen

dute: erizainak eta medikuak. “Derri-gorrezko laguntzak oinarri batzuk ditu eta langile kopurua horietako bat da”, kontatu digu Arrondok. Eskaintzen duten zerbitzua baino azterketa espezifikoagoak edo bestelakoak egin behar izanez gero, Arrasatera bidaltzen dituzte pazienteak, edo Gasteizko ospitaleetara.

Anbulatorioan hobekuntzak gus-tura egingo zituztela adierazi digu erizainak, “baina hobekuntzak lortzea ez da erraza izaten”. Hala ere, aspaldian zenbait hobekuntza egin dituzte, Aramaioko Udalarri esker. Bestek beste, osasun zentroa margotu dute eta zenbait leiho aldatu dituzte. Kontsulta, sendatze-gela eta biltegia areto bakarrean dute eta etorkizunean gustatuko litzaike hiru horiek banatzea.

ARAMAIOKO ANBULATORIOA

Aramaioko anbulatorioan bi profesional sanitariok egiten dute lan. Erizainek eta medikuak osatzen dute lan taldea eta 1.500 biztanle inguruko herriari eskaintzen diote zerbitzua

EGUNEROKO LANA

Lan egunak oso antzerakoak izaten omen dira Aramaioko Anbulatorioan. “Egun bakoitza ezberdina izanagatik, erroa berbera da”. Asteko bi egunetan odola ateratzen da lehen orduan. Gero, kontsulta pasatzen dute eta eguerdi partean erizaina Arrasatera joaten da. Medikuek, berriz, kanpo irteerak egiten ditu. “Horiek ere eguneroko lanaren parte dira”, gaineratu du.

Aramaio herri txikia izanagatik, egunero pertsona asko artatzen dituzte bertako osasun zentroan. Gu kontsultatik atera garenerako paziente bat sartu da bertara. Eta Itxarongelan ere jendea dago zain.

Artatu: Atender.

Gertukoa: Cercano.

Hitzordua egin: Citarse.

Itxarongela: Sala de espera.

Joan-etorria: Ir y venir, trajín.



"EUSKARAK KALITATEA ERANSTEN DIO ZERBITZUARI"

NAIARA DE TORRE GOIKOETXEA, ZELADOREA GORLIZ OSPITALEAN

AMAK BEZALA, **ZELADOREA** IZATEA AUKERATU ZUEN NAIARAK ETA GAUR EGUN LANBIDE HORRETAN DIHARDU GORLIZ OSPITALEAN, BIZKAIA. EZ DA OSPITALE HANDIA GORLIZKOA, 149 OHE DITU, 300 LANGILE INGURU, ETA **EGONALDI** ERTAIN ETA LUZEKO GAIXOAK ARTATZEN DITUZTE BERTAN. ZELADORE TALDEA 17 LAGUNEK OSATZEN DUTE ETA BI TXANDATAN EGITEN DUTE LAN, PLANTAKO ZEREGINETAN ETA ERREHABILITAZIOAN.

Nolakoa da zuen lana?

Lehenak gara gaixoei ongietorria ematen eta askotan gaixoei harremana duten ospitaleko aurreneko profesionalak izaten gara. Guztira 17 zeladore gaude eta harreman ona dugu gure artean.

Eta gaixoei nola jokatzeko du zeladoreak?

Ahal dugun neurrian gaixoei egonaldia erraztu behar diegu. Ho-

rrexegatik zeladoreak beti erakutsi behar du aurpegi ona. Sufritzen eta minarekin dauden pertsonekin egiten dugu lan, eta hortaz, alai eta era atseginean artatu behar dugu gaixoa. Hori oso garrantzitsua da. **Zerbitzua eskaintzerakoan lehenengo hitza euskaraz egiten duzue?**

Euskaraz dakigunok bai. Gure artean ere, zeladore euskaldunok

BIZKAIERAZ

"Ospitale honetara inguruko jende asko etortzen da, adineko pertsonak, eta beraiekin euskaraz egiten dugu, bizkaieraz"

euskaraz egiten dugu baina 17 lagunetik gehienak ez dira euskal hiztunak, ez dute euskararen aldeko jarrera eta askotan gazteleraz egin behar izaten dugu. Pazienteei, berriaz, euskaraz egiten saiatzen gara. Ospitale honetara inguruko jende asko etortzen da, adineko pertsonak, eta beraiekin euskaraz egiten dugu, bizkaieraz.

Euskaldunei euskarazko harremanak konfiantza eragiten die?

Zalantzarik gabe. Uste du euskaraz jakiteak aukera gehiago ematen digula. Euskara balio erantsi bat da gure lanean, kalitatezko zerbitzua eskaintzeko aukera ematen digulako. Esango nuke komunikazio hobea lortzen dugula gaixoei eta **hurbiltasun** handiagoa izaten dugula paziente euskaldunekin euskaraz eginez gero.

Komunikazioarekin kalitatea ere hobetzen da, ezta?

Komunikazio horrek gaixoaren eta gure arteko harremanetan eragin zuzena du, eta hortaz zerbitzua hobea dela esango nuke. Kalitatean eta berdintasunean aurrerapausoa dela esan daiteke.

Ezagutu duzu soilik euskaraz zein pazienterik?

Nik ez baina inoiz entzun diot amari kasuren bat. Bermeoko adineko emakume batek zeladore ez euskaldun bati zenbait eskaera egin ondoren nire amari deitu behar izan zioten ea zer nahi zuen galdeztzeko. Horrelakoak ez dira gehiegi izaten, baina gertatzen dira.

Zerbitzuaren satisfazioari erreparatzeko badiogu, euskarak balioko du zerbitzu hobea eskaintzeko, ezta?

Euskaldunak gusturago sentitzen dira zerbitzua euskaraz jasotzen badute eta gaixoaren zein familiaren satisfazio maila askoz altuagoa izaten da. Oro har esango nuke euskarak kalitatea eransteko diola zerbitzuari.

Egonaldi: *Estancia, tiempo de permanencia.*

Erreparatu: *Fijarse.*

Hurbiltasuna: *Cercania.*

Zeladore: *Celador/a.*



MEDIKUEN ETA EUSKARAREN ARTEKO HASTAPENAK

IDAZLAN HONETAN XVII-XX MENDE ARTEKO HAMALAU MEDIKU ZERRENDATU ETA AURKEZTUKO DITUGU, BI ERAKOAK DIRA ORO HAR; BATETIK, GEHIENGOA OSOTZEN DUTEN MEDIKU IZANIK EUSKAL LITERATURAN, BATEZ ERE, EKARPEN LITERARIOA EGIN DUTENAK. BIGARRENIK, ORDEA, ASKOZ GUTXIAGO DIRA EKARPEN TEKNIKOA EGIN DUTENAK, HIZKUNTZAREN ALORREAN, NAHIZ ZIENTZIAREN DIBULGAZIOAN.

Guztira hogeitahogeita hamar inguru dira euskal literaturaren historian aipatu ditzakegun medikuak, gehienak Iparraldekoak, izan ere, bi mende lehenago alde horretan hasi baitzen euskaraz “inprimatzen”, edonola eta, beranduago izan bazen ere, hegoaldekoak ere ez dira faltako.

Guk mediku hauen aipamena egingo dugu eta zenbaki bakoitzeko pare baten biografiaren laburpena helaraziko dizuegu, horrela izango bada hasi gaitezen:

**Joanes Etxeberri Sarakoa
(1668-1749)**

Joanes Etxeberri Lapurdiko Sara

herrian jaio zen 1668an eta medikuntzako ikasketak Okzitaniako Tolosako Unibertsitatean egin zituen, areago da, 1694ko azaroaren lehenean batxiler izendatu zuten medikuntzan.

1700. urtean itzuli zen sorterrira bere mediku ofizioan jardun eta Katalina Itsasgaratekoarekin ezkontzeko. Familia oparoa izan zuen eta bere seme-alabetako bat, Agustin, Mutrikun sendagile egon zen.

Handik gutxira Sarako medikuak sorterrira utzi zuen irabazi hobearren menturan; Berako medikua izateko lehenik (1716), Hondarribiako gero (1723) eta azkenik, Azkoitian kokatu zen fa-

milia guztiarekin (1725). Urola bailarako herrian zahartu eta hil zen 1740an.

Azkoitian bizi eta hil

Azkoitian zegoela **ospe** handia izan omen zuen mediku bezala, baina euskaltzale bezala ere, harreman jarraikiak izan zituen, bereziki Loiolako euskaldun jesuita ezagunekin, hala nola, Larramendi (1690-1766) eta Kardaberatzekin (1703-1770).

Euskal Literaturari dagokionez bere obraren garrantziaz **ohartzeko**, Ibon Sarasolaren hitzak irakurri besterik ez dago "lapurtar klasiko hobere-netako bat izan zen Joanes Etxeberri Sarakoa".

Joanes Etxeberri Ziburuko teologoaren anaia medikua

Joanes Etxeberri Ziburuko teologoak bere "Manual Debozinezkoa" argitaratu zuelarik 1627an, hain zuzen ere, medikua zen bere anaiari egin zion eskaintza eta eman zizkion zorionak. Izan ere, orduan hil berria zen eta bertsozale handia omen zen. Askoz gehiago ez badakigu ere gure literaturaren historian **lehengo mediku euskaltzalea** izan dela **berretsi** ahal da.

“Euskal Literaturari dagokionez bere obraren garrantziaz ohartzeko, Ibon Sarasolaren hitzak irakurri besterik ez dago “lapurtar klasiko hobere-netako bat izan zen Joanes Etxeberri Sarakoa”.

Beherakada: *Caida, bajón.*
Berretsi: *Confirmar*
Jardun: *Trabajar, dedicar.*
Helarazi: *Hacer llegar*
Kargutik kendu: *Destituir, quitar del cargo*
Ohartu: *Darse cuenta.*
Ospea: *Fama.*


Gratien Jean Baptiste Ducos (1743-1828)

Donibane Lohizunen sortu zen 1743ko abenduaren 2an. Gratien Jean Baptiste Ducosek medikuntza eskolak amaitu ondoren ofizio horretan **jardun** zuen bere sorterrian. Baina XVIII.an Iparralde osoko baina bereziki Donibaneko ekonomiak jasan zuen **beherakada** itzelaren ondorioz, lapurtar askoren antzera, 1789ko iraultzaren alde egin zuen mediku lapurtarrak.

Horiek horrela, Claret bere adiskidearekin herritarren arrangurak helarazi zizkion orduan Parisko Biltzarrari, harrez geroztik, 1790ean Donibaneko alkate izendatu, eta **kargutik kendu** zuten iraultzaile beraiek 1792an. Hori nahiko ez balitz “aristokrata zikotzen” taldean sartu eta zerga berezia ordaintzera kondenatu zuten.

Geroxeago sorterrira itzuli zen “beldur-ikaren” egunak iragan ondoren eta W.Humbolt hizkuntzalari prusiar jakintsua ezagutu eta luzerako harremanak egin zituen.

1828an hil zen bere sorterrian Donibaneko Gratien Ducos sendagile eta herrigizon euskalduna.



“MENDIA, PERTSONAK, KULTURA... GUZTIA IZAN DA IKUSGARRIA BIDAIA HONETAN”



AZAROAREN 8TIK ABENDUAREN 1ERA BITARTEAN HIMALAYAN IZAN ZIREN MIKEL ZUBELDIA ETA TXEMI CARRETE OSAKIDETZAKO LANGILEAK. BOST LAGUN JOAN ZIREN ETA 6.190 METROKO IMJA-TSE **TONTORRA** IGOZTEKO AUKERA IZAN ZUTEN.

Donostia Unibertsitate Ospitalean egiten dute lan Zubeldiak eta Carretek. Arotzak dira eta **mantenuan** dihardute jardunean. Beraien pasioa, berriz, mendia da. Orain 20 urte ezagutu zuten elkar mendiaren aitzakiarekin eta oraindik orain kordadako lagunak izaten jarraitzen dute. “Pirinioak, Alpeak, Akonkua, Elbrus... askotariko espedizioak egin ditugu elkarrekin”.

Iaz mendiaren zaletasunari beste bultzada bat ematea erabaki zuten eta Himalayara egin zuten **jauzia** azaroan. Trekking bat antolatu zuten Himalayako Kumbu ibarrean barrena. 17 eguneko ibilbidea prestatu zuten, “guztira 170 km eta 12 mila metroko desnibela”. Hernaniko Mendiriz Mendi elkarteko kideak dira biak eta trekkingean beste hiru kide izan zituzten **bidelagun**: Mikel Astinza, Juanra Jodar eta Javi Zubeldia.

BIDAIA ZORAGARRIA

“Mendia, kultura, pertsonak, espiritualtasuna... bidaia zoragarria izan da”, eman digute aditzera Mikelek eta Txemik. “Bertako bizilagunek izugarri mezezi dute, oso naturalak dira. Ezer ez dute baina dutena konpartitzeko prest agertzen dira beti”. Hori izan da, behar bada, bidaiatik ekarri duten oroitzapenik dotoreena.

Era berean, munduko tontorrik garaienak bertatik bertara ikusteko aukera ere izan dute. “Trekkingak Himalaya-



ko bihotza zeharkatzen zuen eta tontor izugarriak ikusteko aukera izan dugu. Betiere 4.000-5.000 metrora mugitzen ginen eta bidetik ikusi ditugu Everest, Lhotse, Makalu, Cho Oyu, Pumori...”. Gainera, Mikelek Imja-Tse mendia igotzeko aukera izan zuen, 6.190 metrokoa.

EGURALDI GARBIA BAINA HOTZA

Hasierako egunetan lainoak nagusitu baziren ere, laugarrenetik aurrera hotsarekin batera argitasuna izan zuten bidelagun. “Tenperatura oso hotza izan genuen, hamar gradu zero azpitik mendiko aterpetxe barruan, beraz, pentsa kanpoan zelako hotza egiten zuen”. Horri aurre egiteko egunean 5 eta 6 orduko ibilbideak egiten zituzten, mendian gora eta behera... bide gogorrean.

Tenpluak, estupak eta beste hainbat elementu tipikorekin disfrutatzeko aukera ere izan zuten, eta jakiekin ere ez zuten inongo arazorik izan, “egunero jaki asiaticoak zein europarrak izaten genituen dastatzeko”. Oro har, oso gustura itzuli dira Himalayatik, “gure lehenengo esperientzia izan da eta bueltatzeko go-


DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEAN egiten dute lan Mikel Zubeldia eta Txemi Carretek.

goa areagotu zaigu. Arazoa, ordea, dirua da. Ehuneko ehuna guk finantzatu dugu eta garestia izan da, ea hurrengoan Osakidetzak laguntzen digun”.

GOMENDIOA

Himalayaz gain Euskal Herrian ere sekulako lekuak daude eta gure bi alpinistek gomendio bat egiteko eskatu diegu. “Trumuseko zirkua, Vignemale ingurua edo Perdido mendia oso ikusgarriak dira guztiak ere”. Hori bai, inguru horietan ibiltzeko komeni da mendian **eskarmentua** edukitzea, bestela hobe da Aralarrera **gerturatzea**, “han ere gozatu ederra hartu baitaiteke”.

Bidelagun: *Compañero de viaje.*
Eskarmentua: *Experiencia.*
Gerturatu: *Acercarse.*
Jauzia: *Salto.*
Mantenua: *Mantenimiento.*
Tontorra: *Cumbre.*



AGURAIN-SALVATIERRA ERDI AROKO ONDAREA



AGURAIN-SALVATIERRA ARABAKO IPAR-EKIALDEAN DAGO ETA IZEN BEREKO KOADRILAKO BURUA DA. ARABAKO LAUGARREN HERRIRIK JENDETSUENA DA, ETA GASTEIZTIK 26 KILOMETRORA DAGO. XIII. MENDEKO ERMITA ETA ELIZAK, ERDI AROKO **HIRIBILDU**A, JAUREGIAK ETA OLBEA BEREIZGARRIAK IZATEAZ GAIN, NATURA INGURU EDERREAN KOKATUTA DAGO.

Agurain eta horrek bisitari **franko** eramatzen ditu herrira. Hala ere, udalerriak ezkutuan gordeta dituen **altxorrek** gero eta kanpotar gehiago erakartzen dituzte bertara. Hiribilduak Erdi Aroko egitura dauka eta harresiz inguratuta dago. Horrez gain, Aguraingo marka dira plaza inguratzen duten arkupe bereziak, olbeak. Forma eta tamaina desberdinetako zutabeek osatuta daude eta beste inon hartu ez duten izena dute gaztekeraz: olbeak. Izenaren jatorria ohol beheak omen da, euskarari dagokiona.

Agurain 1025. urtetik gutxienez eraikitako herrixkaren izena da; eta Salvatierra, ordea, herrixka zegoen lekuan Gaztela-Errege Alfonsso X.ak 1256an eraikitako defentsa hiribildua.

Gaur egun Aguraingo jende gehiena industriatik bizi da; eta Aguraingo koadrila osatzen duten gainontzeko herritako biztanleak, berriz, nekazaritza, abeltzaintza eta gaztagintzatik, bertan idiazabalgo gazta egiten baita. Udala Agurain turismora gehiago zabaltzeko asmotan dabil aspalditik, eta horretan dihardute 90eko hamarkada erdialdetik zabalik dagoen eskualdeko turismo bulegoan lanean. Asteartetik igandera 10:00etatik 14:00etara egiten dute harrerera (uztailean, abuztuan eta Aste Santutan egun osoz) eta astebururo bi bisita gidatu egiten dituzte: larunbatetan, Hiru harribitxiak izenekoa, XIII. eta XIV. mendeetakoak diren Gazeo, Alaiz eta Añuako elizak erakusten dituzte, pintura oso garrantzitsuak dituztenak. Igandee-tan, berriz, hiribildu barruko Santa Marina eta San Juan elizak, hiribildua bera eta udaletxea erakustez gain, Gazeo eta Alaizara ere joaten dira.

Donejakue bidearen pasoa dago



Altxorra: Tesoro.

Berriren berri egin: Hacer de nuevo.

Donejakue bidea: Camino de Santiago.

Franko: Muchos.

Hiribildua: Villa.




XIII. mendeko ermita udaletxe barruan

Jende asko harrituta joaten da Agurainera udaletxearengatik galdezka. Izan ere, udaletxe zaharra XIII. mendeko ermita bati itsatsita eraikita zegoen; eta udal eraikina **berriren berri** egin zutenean, ermita berreskuratu eta eraikin modernoa horren inguruan egin zuten, hau da, ermita barruan gelditu da. Bitxikeria horri gehitu behar zaio Salvatierra hiribildua 1564. urtean erabat erre zela eta suteak hondatu ez zituen bi eraikinetatik bat ermita hori dela (bestea Carniceria kaleko etxe bat da). Ermita horri buruzko lehen erreferentziak XIII. mendekoak dira, baina aditu batzuek uste dute XII. mendean eraiki zutela. Hala, Agurain herrixka zenaren azken arrastoak dira.

Turismo bulegoak antolatu ohi duen igandeetako bisitan udaletxea ikustez gain, ohikoan itxita egoten diren San Juan eta Santa Marina elizak ere barrutik ikusi ahal dira. San Juan elizak oso armarriz berezia du koroan; eta Santa Marinakoaren harria oso landua da.

Informazio gehiago: www.agurain.com



GURE ELKARTEAK
SAKONEAN
ATZERA BEGIRA
IKERKETA

PLAZATIK
ZORTZIKO TXIKIAN
GERTUTIK

IRADOKIZUNAK
AGENDA
JAKINBERRI

EUSKARA OSAKIDETZAN
OSASUN
URRATSAK

KIROLA OSAKIDETZAN
LANBIDEA
TXAPELA
BURUAN

ANBULATORIOAN
GERTUTIK

GURE ELKARTEAK
SAKONEAN
ATZERA BEGIRA
IKERKETA

PLAZATIK
ZORTZIKO TXIKIAN
GERTUTIK

Bidaia (langileen bidaia eta argazkiak).

- Behin bat. Herriko anbulatorioan edo ospitalean gertatutako pasarte bat kontatu nahi badiguzu.
- Iradokizunak. Ezer komentatu nahi izanez gero horra gure koadernoan.
- Ezetz jakint. Zalantzarik baduzu idatzi eta argitzen saiatuko gara.
- Gure txokoa. Lantalden ospakizunak eta orotarriak biltzeko atala.

Ongi
etorri
Osatuberri
mundura

> osatuherri@osakidetza.net



945 006 406